

KANALAK

Gure enpresa, zerbitzu enpresa da, hori dela eta, zerbitzu hori eskeintzeko guk geuk zuzenean jardungo dugu bezeroarekin, inolako bitartekarien beharrik gabe. Hau da, langileak eta bolondresak bezeroekin egongo gara eta beraien beharrak asetuko ditugu. Zerbitzu horiek espazio ezberdinetan eskeiniko ditugu eta gure kanala zuzena da, gure zerbitzuak ez ditugulako bitartekari baten bitartez eskaintzen baizik eta zuzenki bezeroekin. Eremu horiek, gure banaketa kanal izango bailiran hartuko ditugu eta ondorengoak izango dira:

1. Bezeroen etxera joaten garenean beraiekin jolasak egitera eta beraiekin denbora pasatzera, bakarrik ez sentitzeko, kanala bezeroaren etxea da.
2. Beste egoera bat da paseo bat ematera joaten garenean bezeroekin, osasuntsu egoteko eta natura ikusteko, hau da, ez egoteko etxean egun guztia bakarrik, beraiekin joaten gara paseoak ematera eta ibiltzera, kasu honetan, kanala eremu naturala da.
3. Gure lokalean hainbat ekintza egingo ditugu baita. Bezeroak etorriko dira egun batzuetan eta bertan egongo gara beraiekin. Lokalean egingo diren ekintzak honako hauek dira; mantenimenduzko gimnasia, astelenean eta asteazkenean 10:30-11:30. Yoga egin ahal dute astearte eta ostegunak 11etatik 12etara. Azkenik bi txanda daude luzaketak egiteko, bat astearte eta ostegunetan arratsaldeko 5etatik 6etara eta bigarrena, astelehetan eta asteazken 11etatik 12etara. Lokala Gasteizen dago eta leku handia da, gure ekintza guztiak eroso egiteko. Pare bat gela egongo dira egiteko ariketa fisikoa eta materiala gordetzeko. Gainera, ofizina moduko gela bat eukiko du lokala eta hor langileok lan egingo dugu. Gure lokala da kanala.

4. Gainera, webgune bat sortu dugu eta gure plangintza hor ikusi ahal dute bezeroak eta edonor apuntatu nahiko balu, hor informazioa jasoko du. Hor dagoen informazioa nahikoa ez bada, gure gmail-a jarrita dago webgunean eta beti erantzuten ditugu galdera guztiak: haekelkartea@gmail.com. Kanalak webgunea eta gmail-a dira ere.

